

**IRAKI ERASOTZEKO ASMOA.** Saddam Husseinen gobernu prest dago zientzialarien elkarrizketetan bere ordezkariak izan beharrean nazioartekoak egotea onartzeko. Paris eta Londres bat etorri dira gatazka NBEren bitartez konpondu beharra dagoela.

# Bagdadek suntsipen handiko armak dituela frogatzen saiatuko da gaur Powell

AEBetako Estatu idazkariaren arabera, informazio «sinesgarriak» aurkeztuko ditu baina ez «ukaezinak»

Erredakzioa | DONOSTIA

Colin Powell Ameriketako Estatu Batuetako Estatu idazkariak, Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluan gaur egingo duen agerraldian, «ukaezinak ez diren» baina «sinesgarriak diren frogak» aurkeztuko dituela ziurtatu zuen atzo Washingtonen, Irakeko agintariek ustez ezkutatu nahi dituzten arma debekatuen inguruan. Hala azaldu zuen Richard Boucher Estatu idazkaritzako eledunak, eta gaineratu: «NBEko ikuskatzaileekin Irak ez dabilela zinez elkarlanean, informazioak ezkututzen dituela eta suntsipen handiko armak gordetzen saiatzen dela argi agertzen duten gertaeren argitzea izango da».

Powellek gaur erakutsiko dituen «froga» horiek zehazki zein diren Washingtonen orain arte zehaztu ez badu ere, AEBetako Armadako satellite eta hegazkin espioiek hartutako argazkiak eta zerbitzu sekretuek egindako grabazioak izango direla diote informazio iturri ez-ofizial batzuek. Argazkiei dago-kienez, arma bakteriológico eta kimikoak fabrikatzeko ustezko laborategi mugikorak erakutsi litzakete, eta grabazioak lirartekete, berriz, irakiar goi agintari zenbaiten arteko solasaldienak.

Alabaina, gaur egun Kanadan bizi den eta Saddam Husseinen erregimenak 1970 eta 1980ko hamarkadetan bultzatu zuen armamendu nuklearraren garapen saioetan esku hartu zuen Imad Khaduri zientzialari irakiarrek «oso ezinezkotzat» jo zuen atzo Bagdadek 1998. urteaz geroztik suntsipen handiko armamendu programarik berriro indarrean jarri izana. Golkoko gerraren ostetik, 1991tik eta 1998ko amaiera arte ikuskatze lanetan ibili zen NBEko lehen misio bat.

Colin Powellen mintzaldiaren atarian, Saddam Hussein Irakeko presidentek dei ezohikoa egin zion atzo Tony Blair Erresuma Batuko lehen ministroari, George W. Bush AEBetako presidentea konbentzi dezan



JEROME DELAY / AP  
Irakeko 5.000tik gora herritarrek desfile militar batean hartu zuten parte atzo, iparraldeko Mosul hirian.

## LONDRESEN AKUSAZIOAK

### Irak, ikuskatzaileak zelatzeaz akusatuta

Erresuma Batuko Gobernuak Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluari helarazitako ikerketa txosten baten arabera, Iraken lanean diharduten UNMOVIC Nazio Batuen Kontrol, Egiaztatze eta Ikuskatze Batzordeko eta IAEA Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziako 118 ikuskatzaileak etengabe zelatatuak dira. Informe horren arabera, Al-Mukhabarat irakiar zerbitzu sekretuek ikuskatzaileen zaintzeko ekipamenduak jarri dituzte ikus-

kariak bizi diren hotel eta bulegoetan, eta euren jarduera guztiak begiztatuak dira. «Ikuskatzaileen segurtasunaz arduratzen diren irakiarrek oro Al-Mukhabarratekoak dira, baita ikuskarrien ibilgailuetako gidariak ere», dio Londresko zerbitzu sekretuen txostenak. Gauzak horrela, informeak dio ikuskatzaileen hara-honat guztiak zorrozki kontrolatuta daudela eta euren eguneroko programan egiten duten edozein aldatetaren berri dakitela irakiarrek. Txostenak adierazten du ikuskatzaileen bulegoetan mikroak jarrita daudela, baina nabarmendu behar da 2001eko azaroan joandako lehen nazioarteko jardulek kontrolak egin zituztela hainbat egunez hori eragozteko.

Irakek ez duela suntsipen handiko armarik ezkututzen. «Erresuma Batua jaungoikoaren graziaz eta mundu zabaleko gizakien esker onez jantzia izango da estatubatuarrak argitzea lortzen badu», eman zuen aditzera Husseinek, Irakeko agintari militarrekin atzo egin zuen bilerraren ostean. Baliteke adierazpen horiek Erresuma Batuko herritarren alderat egindako

mezu bat izatea, zeren eta azken iritzi azterketek agerian ezarri baitute herritarren %80k begi txarrez ikusten dutela Erresuma Batuak Iraken aurkako gerra batean parte hartzea, NBEren babesik gabe.

#### Bagdad eta europarren «ideia ona»

Badirudi, haatik, Londresek aukera hori hobesten duela orain. Hala ematen zuten aditzera,

behintzat, Erresuma Batuen eta Frantzia artean atzo egin zen 25. bilera nagusiaren amaieran egindako adierazpenek. Frantziako Le Touquet hirian egin zen elkarretaratze horren berri eman zuten atzo Jacques Chirac presidente frantziarrak eta Tony Blair Erresuma Batuko lehen ministroak. Chiracek kazetarien aurrean erran zuenez, «ikuspuntu ez-

berdinak egon arren, Frantzia eta Erresuma Batua osoki bat daude Iraken desarmamendua NBEren Segurtasun Kontseiluaren gerizapean gauzatu behar dela aldarrikatzeko». Kontu horretan, haatik, ikuspuntu ezberdinak daudela nabarmendu zuen Chiracek: «Frantziak iritzi dio funtsezkoa dela gaur egun NBEko ikuskatzaileek euren lanari jarraitu diezaioten eta eman diezaiogun jarduera horretarako baliabide guztiak».

Ikuskatzeetarako baliabideen artean egon daiteke arma programetan esku hartu zuten zientzialari irakiarrek Bagdadeko agintearen begiraririk egon gabe itauntzea. Ikuskatzaileek ez dute orain arte horrelakorik lortu, baina badirudi Bagdad prest dagokeela nazioarteko ordezkariak onartzeko galdekietan, irakiar agintearen mandatarien ordezkariak. Europako Parlamentuko ordezkariak batak egindako proposamen hori «ideia ontzat» jo zuen atzo Husseinen aholkulari Amerikar Saadi jeneralak.